

“Beste ekonomia bat martxan dago” Jardunaldiak 2020

Azaroak 20 eta 27

Online formatua

Egitaraua

Urtero bezala, Mugarik gabeko Ekonomilariok eta UNEDek jardunaldi hauek antolatzen ditugu eraiki nahi dugun eredu ekonomikoari buruz hausnarketa kolektiboa egiteko.

Edizio hau, hala ere, testuinguru bereziki konplexu eta kritiko batean ospatzen da, COVID-19 pandemiaren eraginez. Pandemia honek are gehiago nabarmendu ditu egungo sistema ekonomikoaren egiturako arazo larriak eta horrek pertsonen eta planetaren bizitzan dituen ondorioak: krisi ekologikoa, gero eta desberdintasun handiagoak, zerbitzu publikoen narriadura, zaintza-krisiak, besteak beste. Gai horiei buruz elkarrekin hausnartzea eta eztabaidatzea are beharrezkoagoa eta egokiagoa da testuinguru horretan.

Horretarako, aurtengo jardunaldietan, Jason Hickel *London School of Economics*-eko kidearekin hazkunde ekologikoaren muga ekologikoei buruz eztabaidatuko dugu; Kate Roll *University College London*-eko kideak Estatuak eta fiskalitateak egungo testuinguruan duten eginkizunaz hitz egingo digu; eta Cesar Rendueles Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko kidearekin aukera berdintasunari buruz hausnartu ahal izango dugu. Halaber, Gep & Do Behatokiko eta Pandora Mirabiliako ikertzaile-talde batek (Astrid Agenjo Calderón, MGiulia Costanzo Talarico, Nazareth Gallego-Morón, Laura Martínez-Jiménez eta Laura Tejado Montero) Espainiako unibertsitate-sistema publikoan ekonomiaren irakaskuntzaren egoerari buruzko diagnostikoa aurkeztuko digute.

Egitaraua azaroaren 20an eta 27an egingo diren bi saiotan egituratzen da, eta Internet bidez jarraitu ahal izango dira (zuzenean edo geroratuta).

Azaroak 20, ostirala

Goiza

12.00-14.00. *Inaugurazio hitzaldia*. Hazkunde ekonomikoaren mugak.

Jason Hickel. London School of Economics (LSE)

Arratsaldea

15.30-17.30. Ekonomiaren irakaskuntza Espainiako unibertsitate-sistema publikoan

Astrid Agenjo Calderón, MGiulia Costanzo Talarico, Nazareth Gallego-Morón, Laura Martínez-Jiménez eta Laura Tejado Montero

Azaroak 27, ostirala

Goiza

10.00-12.00. Estatuaren eginkizuna

Kate Roll. University College London

12.00-14.00. Aukera-berdintasunaren aurka

César Rendueles. Universidad Complutense de Madrid